

EUSKALKETAK

GURE izkuntza ederrari diogun naitasuna ez degu azaldu biar berri itz gošo ta eztitzuak donkituaz bakarrik. Egokiyago, biarrago ta zuzenago da, alik eta geyena euskeraz itzegitia eta idaztia; eta ori al dan garbi, jator, chukun eta apañena egitia.

Ez degu onekin esan nai, itz berri ta esakera korapillatsuak ugari ibilli biar ditugula euskalzaleak. Badira bai diruditenak ori daukatela eginkizun biarrenekoa bezela euskera pizkortzeko. Orrela gure izkuntza zoragarriya goratzen dutela. Goratuko dute biar bada, baña, ain gora, ezik, iñorcho ezin irichi leiken lekura.

Ez gera iritzi ortakuak. Euskera sendotzeko, euskera goratzeko, bizi bizi gure artian irauñ dezan Euskal erria'ren errañu bat gelditzen dan bitartian, lenbiziko lana iduritzen zaigu dala euskeraz itzegia eta idaztia. Ori da gure ustietan lenbiziko lana. Ori biar degu guzien gañetik. Euskaldunak, guziyak ez bada re, alik eta geyenak euskeraz itz egitia. Orrela sendotu, pizkortu eta goratuko genuke egiyaz gure euskera.

Urrengoa da, aldan garbiyena egitia. Lenbizi euskeraz egin beñepin, gero aldan ondoena; bañan beti euskeraz.

Gure izkuntzaren garbitazunerako, erdal-itzen orde euskerazkoak jartzeko, ez da bide bakarra izen berriyak sortzia. Baliteke bide au charrena izatia. Kontuz ibilli bearra beñepin bai.

Garbitasun lan oyetako zuzenagoa arkitzen degu, chokoratuta, as-tuta dauden itz zar asko berrero izkerara biurtzia. Zenbat itz ez daude gure aurrekoak utzitako liburu batzuetan iñorchok erabiltzen ez dituztenak.

Badira, gañera, gauz asko, erri batzuetan erdal-izenakin ezagutzen diranak, eta guchiyena uste dan errikoškor'en batian arkitzen da izen jator ta egokiya.

Ontan gauza arrigarriyak ikusten dira. Erri batian arkitzen de euskal-izen jator jatorra zenbait gauza adierazteko, eta beste askorentzat berriz, erdalkeriz anpatuak dabilzkite. Eta aldameneko errian, one-nian, bestien jatorreskuen orde z erderazkoak dituzte, eta erderazkoen lekuan berriz itzik garbiyenak eta egokiyenak.

¿Zer da bada egin lezakeguna, ta egin biar deguna? Gauza jakina. Zokoratu, bastartu erdal-itzak eta batetik eta bestetik bildu, jaso bana-ka banaka euskal-itz jatorrak eta abekin antolatu erri guzietarako iz-kuntza bakarra, chukun, garbi, apaña.

Bide au zuzenagoa da, ta ez bakoitza bere aldetik izen berriak zomatzen ekitia, ta gauza berri, ichura gabekoa, gure izkuntza zarrari ematia.

Izen berriakin izkera berria egiten da. Izkera zarrari ez dagozkiyo ondo zenbait arintasun eta zenbait umekeri.

Gauza aundiyetan burua ibillirik, chikiyak baztarretatu egiten ditugu, ta azkotan gure iritziyan chikiyak dirala uste ditugunak bestiak baño biarragokuak dira.

Asi gaitian bada chikiyetatik, eutzi dezayogun gelditu gabe, ta poliki poliki sallenetaraño irichiko gera. Ez goyenekuakin, urrunekua-kin asi ta gero ezer aurreratu gabe gelditu. Betik asi, biak ondo sendotu, goyetara irichiko bagera. Eta beti aurrera, aurrera euskera maitaga-riaren alde.

Orrengatik gaur gauza chiki chiki bat aitatzera, nua, Chikiya dala ta ez utzi, chikiyetatik asi biar da aundiak egingo badira.

Ara zer nuan esatera:

Euskeraz s badegu, ta baita re z. ¿Noiz jarri biar da bat eta noiz bestia?

Ezer utza dala ori esango dute askok, ala re ori garbi azaltzia biar biarreku dala iduritzen zaigu; bada s tankera batera esan biarda ta z bestera. ¿Bañan noiz bat eta noiz bestia?

Ara emen goldeera, beste uzkeri asko baño lenago argi ta garbi azaldu biar litzakeana, euskera'ren alde egiten deguna, euskeraz itze-giteko asmoan egingo bagendu.

Donostiya'n, eta beste leku askotan ere bai, s esaten dute beti; eta idazterakuan jakiña dago s dabilkitela batera ta bestera.

Badira berriz beste asko beti z idazten dutenak. Ez da ordia ori orrela. Euskerak biyak ditu: s ta z; ta biyak, biar diran, eran erabilli biar ditugu.

Badira itzak s edo z jarri, oso chandatzen diranak. *Asi*, gaztelarraz *empezar* da; ta *azi* berriz *criar*. Ez dira biyak berdiñak. *Sartu* gaztelarraz *entrar* da ta *zartu*, *envejecer*. ¿Ikusten, nola ez dan gauza bera s edo z ipintzia?

Gauza oyeke dira lenbizi zuzendu biar liakenak beste maratilla asko geroagoko utziyaz.

Eta ez uste jarri ditigun bi itzak bakarrik dirala, s edo z jarri, naztuzten diranak, ez, asko dira, askuak. Ara emen ondorian beste batzubeke mordozka batian bilduak:

<i>Asi</i> = emezar.	<i>Azi</i> = criar.
<i>Aska</i> = pesebre.	<i>Azka</i> = rascándose.
<i>Atso</i> = anciana.	<i>Atzo</i> = ayer.
<i>Ausi</i> = romper.	<i>Auzi</i> = pleito.
<i>Erantsi</i> = adherir.	<i>Erantzi</i> = desnudarse.
<i>Esker</i> = gracia.	<i>Ezker</i> = izquierdo.
<i>Etsi</i> = desesperar.	<i>Etzi</i> = pasado mañana.
<i>Ostu</i> = robar.	<i>Oztu</i> = enfriarse.
<i>Ots</i> = ruido.	<i>Otz</i> = frío.
<i>Sartu</i> = entrar.	<i>Zartu</i> = envejecerse.
<i>Su</i> = fuego.	<i>Zu</i> = tú.

Eta onla beste asko. Ori ikusi ondorian, ¿esan genezake berdin dala s edo z jartzia?

Ez iñolaz. Eta aitortu biar degu gauza abek dirala lenengotik argitaratu, zuzendu eta erakutzi biar diranak, ur aundiyogetan sartu baño lenago.

Abek ondo ikastiak izan biar du asiera. Azieratik ekin biar diogu lanari. Ez echia tellatutik asi, lurretik baño. Goyak irichiko baditugu bietatik eraso biardegu.

Esan zagun, napartar ospetsu baten idazki gain gañekoak diona: «Amaya da asieria».

Bai asierari ondo ekiten dago, amaya'ra ondo iristia.

EUSKALKETAK

GURE izkuntza maitagarria zarra dala, antziñako sasoyetakoa dala, izkerak berak adierazten digu garbi asko.

Ez daukagu ortarako galdetu biarrik liburu zarrei, ez degu billa ibilli biarrik eche, arkaitz edo mendi-baztarretan, ez degu jakin biarrik gizon jakintzuen iritzirik.

Izkerak berak, bere itz egokiyakin azaltzen digu egi au; ta beste ezerk ez lezake indar geyago eman, itz abek ematen diguten baño.

Sasoi zarretako gizaldiei dagokiotenez, guziyak batian daude esanaz: gizonaren lenengo sasoyetakoa, aitz edo arri-sasoya zala. Lenbizi aitz maniatu gabia, maniatua gero, burni sasoya urren, eta abar.

¿Aitz-sasoikoa ote da euskera?

Ikusi zagun.

Begiratu dezayogun lanetako tresnen izen zar batzubei, ta arkituko ditugu:

Achur, Aizkora, Aitzo, Aitzurrak.

Lenengo biyak ondo ezagunak dira. Bigarrena, *aitzo*, orain labana deitzen dioguna bera da. *Aitzurrak*, berriz, goraizien izenarekin orain ezagutzen ditugunak.

Orra beaz lau izen zar, euskal jatorrekuak. Lenengo, *achur*, jakiña da, *aitzur* dala, ta oraindik ere ala esan oi da leku askotan.

Ala dala, ikusten degu lau itzetan: *aitzur*, *aitzkora*, *aitzto* ta *aitzturrak*, guziyetan *aitz* aurretik daramatela. Beraz, jakiña da lenengo tresna zar oyek aitz'ekin egiñak zirala. Edo ta, garbiyago esateko, aitz'ezkuak ziran sasoyian, euskal izen oyek jarri zitzaizkatela. Aitz sasoyekuak dira beaz. Aitz sasoyian, ikusten degunez, gure euskera maitagarria bizi zan.

¿Aitz-maniatutako sasoyian, ala maniatu gabian?

Ez dakigu maniatu gabian bazan, nozki izango zan; baña, maniatu-okoan bazala, itz oyek erakuzten digute garbi asko.

Aitzur, esan nai du *aitz-ur*; au da aitz-zorrotza; *ur* zorrotzaren sustrayian bai dago.

Aitzkora, era berian, *aitz-kora*; edo aitz-zorrotza. *Kora* edo *gora*, berdiñak dira, ta jakiña dago, goyak zenbat eta gorago, zorrotzago izaten dirala.

Aitzto edo *aitz-to*. Azkeneko *to* onek, aunditasuna adierazten du baztutan, chikitasuna bestietan. Itz onetan chikitasuna azaltzen du. Beaz, *aitz-to*, aitz chiki bat zan, orain labana dan bezela.

Aitzturak, *aitzto-urrak*, edo aitzto zorrotzak, len adierazi degun bezela.

Lau tresna abek, ikusten da bada, aitz maniatuakiñ egiñak zirala, ta bertatik ageri da aitz maniatutako sasoyian, euskera ba zebiltela gure asaba zintzoak.

Laneko tresnetatik, guda tresnetara bagatoz, berdin arkituko degu. Ara gai ontako beste lau izen zar euskal jatorrizkuak:

Izkillu, *azkon*, *azaga* ta *ezpata*.

Izkillu, edozein guda-tresna da, edo gaztelarrak *arma* deitzen diotena. *Azkona*, gaztelarrez, *dardo*. *Azaga*, berriz, *jabalina*. *Ezpata*, ez dago esan biarrik, ondo ezaguna bai da. Euskal-izen ortatik artu bai zuten berena, lenbizi erromatarrak, ta beste izkera geyenak ondoren.

¿Non dago *aitz*, galdetu liteke, *Izkillu'an*?

Asieran bertan, erantzungo degu: bada, gauza jakiña da *ai* askotan, laburtzia gatik *i'tan* chandatzen dala; *ez* itz onetan bakarrik, euskal itz askotan baizik. Eta, orrengatik, *aitzkillu* esan biarrian, *izkillu* esaten da.

Ala bada, *Izkillu*, *aitz-killu* da; ta *killu'k* zorrotza adierazten du, *ziri'k* bezelase.

Azkon, *aitz-kon* edo *aitz-gon* da; *gon'ekin* muturra adierazten da.

Azaga, erreñ asko ageri da, *aitz-aga* dala; ta ondo jakiña dago *aga*, *agaya*, makil luziei deitzen zayotela.

Ezpata bera ere *aitz pata* dala ezagun da, ta itz ortatik dakigu euskaldunak lenbizi erabilli zuten *ezpata* aitezkoa zala.

Itz oyek, beaz, adierazten digute euskeraren ta euskaldunen antziñetasuna.

Euskaldunen lenbiziko tresnak aitezkoak, arrizkoak ziran.

Gizonak, lenago burniya ezagutzen bazuben ere, ludi guzi'ko ugalde edo dilubioa gertatu zanian, galdu zuben burniaren berria, ta lane-rako ta gudarako tresnak, arrizko edo aitzezkoak antolatu biarran arkitu zan.

Sasoi orri deitzen zayo, aitz'sasoya.

Len aitatu degun bezela, lenbizi aitz maniatu gabia zan; gero, gizona aurreratzen zijoan bezela aitz-manitua.

Aitz-maniatutako sasoikoak, dira bada, len agertu ditugun euskal itz jatorrak; eta itz oyeke erakuzten digute, gure izketa zarra sasoi artan bazala.

¡Zein arrigarria dan euskera! Izkuntza berezi onek, bere sustrayetan gordetzen digu euskeraren kondaira bera, ta euskaldunen goitasuna.

Liburu zarrrik, idazti antziñekoik ez daukagula..... Ta zer, izkuntza'k berak gordetzen badizkigu guk jakin nai genituzken gauzak, eta biar bada liburu askotan ikusten diran baño berri geyago ta garbiyago ta egiyago.

Maite dezagun bada gure izkera laztana, alegin guziyak eginik, bera ikasten ez azpertzeko, ta egunetik egunera geyago itzezin ta idazteko.

Euskaldunen jatorritasun ta argidotasunen agiria euskera da.

Eutzi dezayogun bada gure agiri illezkorrari.

L. M. AITZBITARTE

EUSKALKETAK

AURREROKO zenbaki batean ikusi gendun gure izkuntza maitia zarra, zarrenetakoazala.

Guda'ko tresna ta lan-tresna batzuben izenak adieiazitzera eman ziguten, lenengo tresna zarrak aitzekoak, arrizkoak zirala, aitz edo arrikin egiñak. Eta nola arri edo aitzekin tresnak egin ziran sasoya oso antziñakoa dan, orra nondik argi azaltzen zaigun, gure euskera laztana guztiz antziñekoa dala.

Ez dira ordia tresna-izenak bakarrik gure izkeraren antziñetasuna erakuzten digutenak. Badira geyagore.

Gure asaba gogoangarriqk etzizkiguten beste erri askotakoak bezela, beren egipen ospetsuak idatzita laga; baña izkerak berak gorde dizkigu lengo egipen batzuen berriak.

Tresna'kin gertatzen dana, soñekoakin ere gertatzen da.

Ez da onekin esan nai soñeko guzien izenak zerbait antziñeko berri erakusten digutela. Ez, ori, ez. Gaurko egunian dabilzkigun soñekoik geyenak berriyak dira, ta beren kenak (baztarturik erdal mordollokuak) euskal jatorrekuak izan arren, soñekoak berak bezela berriak dira, ta ez da beretan arkitzen antziñako berririk batere.

Ori gertatzen da beste izen askoren artian abekin: *gorontza, gerrikoa, lepokoa, belarrikoa* taabar.

Lengo euskaldun zarrak ez baizituzten bada orlako apainketak ibiltzen.

Baña badira soñeko zarren izenak, guztiz zarrak diranak, eta abetatik iru jator jatorrak.

Ara berak: *ator, prakak, abarkak*.

Azkenekotik asiko gera.

Abarka deitzen diogu oñetako ondo ezagunai; menditarrak ibiltzen dituzte oraindik ere, ta ez dute arkituko oñetako oberik diru geyago ordaindu gabe.

Billa dezagun orain izen orren sustraya.

Abar: itz onek *adar* esan nai du; ta ka ondoren daukanak: *gauza*. Beaz *abarka* adarra'kin egintako gauza da. Ta adar, osto, sumitz edo ala egiñak ziran lenengo euskaldunak ibilli zituzten oñetako, *abarka* izendatutakoak.

Prakak, orain galtzak deitzen diogutenak dira. Gaurko eguneko jaskeren tankerakuak ezin izan ordia lengo soñeko zarrak. Ikusi zagun itzak berak zer esaten digun.

Prakak eta abarkak izen ber bera dira.

Galdu zuben bigarren jarri degun itzak aurretik zeraman a, oraindik ere beste itz askorekin gertatzen dan bezela, ta gelditu zan barkak; eta beste chandaketa chiki batekin burkak biurtu zan prakak.

Ala bada prakak ere, adarrez egintako gauzak dira.

Soñekoik zarren zarrenak prakak eta abarkak dira.

Gure guraso zarrak Adan eta Eba, beren obenaren ondoren ostoa-kin gorputzak eztali zituzten bezela; lenengo euskaldunak, oñetako ta soin bakarra, osto edo adarrakin egiñak ibiltzen zituzten.

¿Noiz ordia? Zeñek asmatu zein antziñekoak diran euskera ta euskaldunak.

Praka ta *abarka* sasoya biño aurreroikok ¿ezagutu ote du gizonak lurraren gañian?

Adar edo ostoa-kin gizonak bere gorputza eztaltzen zun sasoyian, baziran euskaldunak; euskeraz itz egiten zan.

Atorra izen geroztikagokoa da. Zarra bai, chit zarra, biña ez len aitatu ditugunak ainbat.

Orain deitzen zayo atorra, emakumeen soñeko barrengoai, gaztelarrez kamisa deitzen danari. Leku batzuetan izen bera dabilte gona izendatzeko ere.

Lengo sasoyetan etzuben izan biar orain aitatu ditugun soñekoen tankerakoa; baizik burutik oketarako jazkera ichi bat, kanpoko ta barrengo guziya berak egiten zula.

Izen orren sustraya ate da; ta esan nai du soñ ura gordetzeko, ezkutatzeko zala; atiakin gelak egiten diran era berean.

Itz onek ez digu adierazten zerekin egiña zan jazkera ura, *prakak*

eta abarkak azaltzen diguten bezela. Ez dakigu beaz adar edo ostoakin zan, edo ordurako eunezkoak ote zebizkiten.

Nola naire jakiña da atorra sortu zan garayian, atiak bazirala, ta ez degu uste gizonak bere gorputza osto, sumitz edo abar jazteko zebizkiyen sasoi antziñako artan, ataik izango zanik.

Beaz atorra gerosiagokoa da. Baña zarra bai, oso zarra.

Emen ikusten dana da, gizasemiak beren jazkera prakak zituztela, au da gerritik berako eztagarri bat. Lenengo sasoyetan adar edo ostoakin egiña; gerosiago eunezkoa.

Emakumiak berriz atorra, lepotik oñetara gorputz guziya gordetzen ziotena, ezkututzen ziotena atiak gela barrena egiten duten bezela.

Batzubek eta bestiak oñetakotzaz avarkak zebizkiten, sumitz edo adarrakin egiñak lenbizikoan. Gero berriz larruzkoak, guchi gora bere oraindik ere gure menditarrak dabizkiten bezela.

Buruban etzuten ezer ibiltzen. Ez gizasemiak ez emakumiak. Burutzik ibiltzen ziran euskaldun zarrak. Ez baizuten arkitu bururako gauza obeik, Jaungoikoak eman zioten ille ugariya bailo.

L. M. AITZBITARTE

EUSKALKETAK

LEN ere esan degu ta berriz ere aitortu biarran arkitzen gera, gure asaba zarrak utzi ez badigute liburu ta paperik antziñako gauzen berri jakiteko, utzi digutela gure izkera maitagarria, ta izkera maitagarri ontan daukazkigula jakin nai genituken gauza askoren sustrayak.

Arreta piška batekin begiratzen badiogu gure izkuntza laztanari, zenbat eta zenbat berri arkituko ditugu lengo gauza zarraz, lengo egipen ezagutu gabiaz.

Guchi, apur batzuben bakarrik ezagutzen ditugu oraindik; makiñabate egongo dira eskutuban iñork asmatu edo somatu ez ditulako.

Ori bakarra naikoa izan biar luke gure izkuntza ederra buru ta belarri ikasten jarduntzeko.

Alderdi guzietan jakintsuak paper zarrak biribiltzen gelditu gabe ibiltzen dira, batetik bestera jua, zoko guziyak goikuaz bera jiratu, batak diona bestian begiratu..... Ta zenbat aldiz alperrik orrenbeste lan ta neke.

Guk berriz, zokoetara berri billa jua gabe, izkuntzan bertan daukazkigu eziñ asmatu ta ezin esan ala berri; ta alaere ez degu arreta piška bat artzen gure izkera mirariya ikasten.

¿Zertarako da euskera? esaten dute askok. Guk erantzungo genio teke: euskaldunentzat guzitarako.

Euskera biar degu alkar aditzeko, euskaldunak gerala adierazteko (ez da oraindik orlako ageririk sortu lan ontarako), ta lengo berri zarren sustraya arkitzeko.

¿Askeneko au ala ote da ordia?

Izango ez da bada. Ara berialaše berri zar bat nola arkituko degun.

Eta ez du orrek esan nai berri ori bakarra arkitu lekiela. Berri ori bezela, zenbat eta zenbat ez ote daude gordiak gure izkuntza maitagarriaren eskutuenian.

Gaurko eguneko euskaldunak sudur luziak gerala, ondo agirian dagon gauza da. Ez baida sudurra baño gauza agiriagokorik. Eta gaur euskaldunak dabizkiten sudurrak ondo ikustekuak dirala gauza jakinada.

Beraz gaurko euskaldunak sudur luziak gera. Baña, lengo antziñako euskaldunak ¿sudur luziak ala sudur motzak ote ziran?

Orra galdeera bat, erantzupena erreš erreša ez dubena.

Ez da aski gaurko euskaldunak sudur luziak izatia, lengo gizaldikuak ala izateko. Sudur motzak izan zitezkie.

Sudurrak chandatzen dira, urtiakin illiak chandatzen diran bezela. Ogei urteko gaztiak ille beltzak baditu, larogei urte alderatu baño len zurituko zaizka noski, illiaren santzorik gabe gelditzen ez bada.

Sudurrak chandatzen dira, arpegiyan gañerako begi, belarri ta abar bezela. Batzubetan bizi dan lekuaren indarrez. Bestietan ezkontzakin odolak naztutuaz arpegiko iritziak aldatzen diralako.

¿Chandatu ote ziran gure asaben sudurrak ere? ¿Ez ote zituzten oraingo euskaldunak bezin sudur luziak?

Ara emen korapillo bat, bera azkatzia erreš erreša ez dirudiyena.

¿Sudur motzak ote ziran lengo euskaldun zarrak?.

¿Gure antzeko sudur luziak ote ziran?

Erantzupena billatu nai badegu, ezin asiko gera paper zar billa. Ez bai ziguten gure asabak laga.

Ez degu ere arkituko irudi edo antsarik arrizko murru zarretan. Ez bai dira izan euskaldunak orlako apainketaren zale.

¿Nola jakin orduan?

Izkuntzari begiratuta. Izkuntzan daukazkigu gauza aben guziyen sustrayak.

Orain darabilligun izen *sudurra* bera zerabilten gure asaba gogoangarriak. Izen ori antziñetakoa da. Sudurra ta izkera ludian diran ezkerroz, euskaldunak izen ori erabilli dute.

Beraz badakigu oraingo ta lengo euskaldunak sudurra berdiña bazuten edo ez bazuten, izena beñepin berbera zutela.

Sudurra deitzen zitzayon lengo garai zarrenetan, sudurra deitzen diogu oraindikan ere.

Ez baita oraindik iñor ausarditu *nariza* deitzera. Naiko izen erdal-

dun mordoll euskeran sartu dizkigute, baña oraindik ez du iñork *nari-za* sartzeko kemenik izan.

Beraz len sudurra deitzen zioten orain bezel bezela.

¿Eta zer esan nai du *sudur* itz orrek?

Ikusi dezagun.

Sudur berez *suur* da. Tarteko *d* ori itz egokiagoa, esaten erresagoa izate arren sartu dana da.

Eta *suur* ori, bi itzetan zabaldu liteke edo zabaldu biar da: *su* edo *sun* eta *ur*.

Su edo *sun'ek* ateria esan nai du; ta *ur'ek* berriz *zorrotza*. Ta orra nola dakigun orain euskaldunak beti erabilli duten *sudurra* itzak, gauza ateria zorrotza izan biar dubela.

Izen ori lengo euskaldun zarrak sortuba da, ta ez dago esan biarrik izen ori sortzerakuan etziotela begiratuko gaurko egunian euskaldunak dabizkiten sudurrai, orduan berak zituzten sudurrai baikik.

Orra nola orain, euskeraren bitartez, dakigun zer nolakuak ziran euskaldun zarren sudurrak.

Ziran gauza ateriak eta zorrotzak; itz batian esateko lengo euskaldun zarrak sudur luziak ziran.

Orainguen ants berekuak.

¿Non arkituko litzake iduri, paper zar edo agiririk, garbiyago ta argiyago erakutziko ligukenik gauza au?

Orrengatik esan degu beti, gure izkuntza maitagarria paper zar guziyen gañetik dabillega lengo gauza zarrak adierazteko; antziñako egi-pen guziyen sustraya bere itzetan daukagula.

Beraz euskaldunaren izena eduki nai duben guziyak maitatu biar du indar gartsuarekin gure izkuntza laztana.

L. M. AITZBITARTE



EUSKALKETAK

AURREROKO chandan, antziñako euskaldunen izate zarrak somatze-ko lanian, *sudurrak* eman zigun nai aña gai.

Ez da ordia itz ori bakarra lan onetarako; itz geyagore badira, askoz ere geyago.

Len ere esan degu ta berriz ere esango degu, euskaldunak bere izkuntzan daukala kondairik jatorrena, egiyena, zuzenena.

Itz bakoitzak adieraztera ematen digu antziñako izaera; nolakoak ziran euskaldunak, beren ichurak, beren jazkerak, beren oiturak eta abar.

Gure asabak zudur lusiak zirala izkuntzak erakutzi zigun garbi asko, aurreroko idaztian azaldu gendun bezela. ¿Illia nolakoa ote zuten? Zaya gaitian asmatzen ote degun.

Orretarako, len bezela, gure izkera zarrari elduko diogu, berak eman dezaizkigun garai zarretako berriak.

Asi gaitian bada:

Euskeraz ezagutzen ditugun izenak dira: *ule, ile, bul* eta *bil*.

Ule, oil'tik datorrena da. Beste itz askotan bezela *oi, u'tan* chandatu dago. Beraz *u* ori *oi'ren* lekuan dagona da. Eta ondorengo *e* berriz, maiz agertzen dana era ontako itzetan. Orra nola *oil* sustraya dala, *ule* gertatzen zaigun.

Beste orrenbeste *ile* gatik esan leike. *Oi* emen *i'tan* chandatu arkitzen da; beraz orain *i* esaten degun lekuan lenbiziko denboretan *oi* esaten zan. Ez dago zer esanik, lenago adierazi degun bezela, azkeneko *e* ori ondotik lotua dagola. Eta argi asko ageri da, ala *ule*, nola *ile*, lenago *oil* zirala.

Ez daukagu gauza berri aundirik esan biarrikan *bul* nola sortua dan adierazteko. Lenengo *oil* izen zarrari aurretik erantzi zitzayon *b* bat eta gertatu zan *boil*; ondoren *oi*, u'tan chandatu ezkeru lenago aitatu degun eran, beriala arkituko degu oraingo *bul*. lenago *boil* zana, ta aurrerago berriz *oil*.

Guziya gai ontan esan degula egin liteke kontu, bada len esan degunakin argi asko ageri da nola antolatua dan oraingo itz *bil*, laugarren jarri deguna. Aurrerokuak bezela *oil'i*, *b* bat erantziya dauka, gero *oi*, i'tan chandatu, ta, gertatu zaigu *bil*.

Beraz ala *ule*, nola *ile bul* eta *bil*, labak sustrai berekoak dira, ta sustrai ori *oil* da.

¿Zer esan nai du ordia, ainbeste aldiz aitatzen degun *oil*, lenengo itz zar orrek?

Oil'ek gauza biribilla esan nai du, ta orain asaldu ditugun itzaz gafiëra, beste askotan ere iritzi ori agertzen dula azaltzen da.

Ez daukagu urrutira joan biarrik.

Biribil berak ere bere sustraya *oil* du. Bada len esan degun bezela *oil*, *bil'en* chandatzen da, ta itz au bi bider esanakin ta ichura obeagorako *ri* tartian jarriarekin, orra nun daukagun *bilribil* edo *biribil*.

Ara beste itz bat: *bildots*, esan nai diguna ille utsa, bada bildotsak ille utza dutela beren jaskera, ongi jakiña da.

Ez da ordia ori bakarra. *Bil'ekin* deitzen diogun ille ori biribilla da, ille kiskurra, ta ondo agirikoa da, ala izaten dala bildotsaren illia.

Era berean beraz, euskaldun zarren illia ere kiskurra zan. Ez baiziyoten izen orrekin deituko lengo garayetan ala izan ez balitz.

Orra bada nola jakitera irišten dan, gure izkuntza zar maitagarriaren bitartez, lengo gure asaba zarren illia nolakoa zan. Badakigu biribilla, kiskurrazala.

Ez du onek esan nai leku batzuketako beltzak bezela ille kiskur kiskurra, bildotzen antzekoa zutela euskaldun zarrak.

Egiyaren ichurik ez luke iritzi orrek izango.

Lengo euskaldunak, oraingoen antzera, ille motza erabilli ezkeru, ez du ain ille kiskurra izango. Gaurko egunian ez da ala ageri, lenagore etzan ala gertatuko.

Baña *ule*, *ile*, *bul* eta *bil* sortu ziran garayan, euskaldunak etziran kaska motzak ibiltzen ille luziakin baizik. Ta illia luze ibilli ezkeru, orain ere gure artian maiz kiskurtzen da.

Ez dago aurrai begiratu besterik.

Zenbat aur chiki ille luziak ikusten dira gure kaleetan illiak kiskur kiskurak dituztela. Baño kiskurtasun au ille luze dutenetan ikusten da;guchitan ille motzak dabizkitenakin.

Badakigu beaz euskaldun zarrak ille luzeak ibiltzen zituztela ta ille oye kiskurak zirala.

Beren lur maite au arrotzen gandik gorde nayian, guda jasar gogorretan arkitu ziran garai antziñako ayetan, buru utzik, baña ille ugari kiskurraz ondo estaliyakin, beren trebetasun ta pizkortasuna agertu zuten ludi guzien aurrian.

¡Zenbat aldiz irrintzi kementsua egiteakoan, beren ille luze kiskurak buruaren jiran aidetu zituzten!

Otsein eta morroyak alderdi guzietan kaska motzak izaten dira.

Ez dira ordia euskaldunak morrontzarako jayoak, beren buruben jabe izateko baizik.

Ta orla beren jatorrizko jabetasuna azaltzen zuten ille luze kiskurretan, izkuntza zar maitagarriak adieraztera ematen digun eran.

L. M. AITZBITARTE

